



ELHUYAR FUNDAZIOAREN V. GOGOETA ESTRATEGIKOA

“Gauza onak, ongi eginak”

Elhuyar Fundazioak 2010-2012 urteetarako norabidea finkatu du egin berri duen gogoeta estrategikoan. 2009ko ekainetik irailera bitartean, Elhuyarreko hainbat lankideren parte-hartzeaz lagunduta, datozen hiru urteetarako erronka nagusiak definitu ditugu. Ziurgabetasunak ziurgabetasun, zientzia gizarteratzen eta euskara garatzen pauso berriak eta tinkoak egiten jarraitu nahi dugu, Elhuyarrek 1972. urtetik egin izan duen bezala.

Xedea - Zer gara?

Zientzia eta teknologia gizarteratzea eta euskararen garapena bultzatzea, eta, horretarako, euskal gizartearekin bat eginez, balio erantsiko zerbitzu, tresna eta baliabideak garatzea, berrikuntza ardatz izanik. Hori dugu xede.

Elhuyarren kulturaren gakoak

- Bezero, bazkide eta gizartearen beharretan oinarritzen da; haien beharrianak entzun eta/edo asetzen daki.
- Elhuyar markaren balioak bultzatzen ditu.
- Berritzaile izateko bokazioa duten profesionalak ditu.
- Enpresa irekia da: aliantzak, lankidetzak eta berrikuntza irekia sustatzen ditu.
- Jakin-mina eta etengabe ikasteko jarrera duten profesionalen osatua dago.
- Euskaraz bizi eta lan egiten du.





7 ILDO ESTRATEGIKO BULTZATUKO DITUGU

ZIENTZIA GIZARTERATZEA

1. Publiko orokorrari zientzia helaraztea

Zientzia eta teknologiari buruzko informazioa dagokion testuinguruan kokatu eta hedatu nahi dugu, euskarri anitzetan, Euskal Herriko gizartearen kultura zientifikoa areagotzeko asmoz.

- Edukiak zabaltzeko sortzen ari diren komunikazio-kanal edo -modu berrietara zabaldu behar dugu, bezeroekiko gertutasun emozionala landuz.
- Zientzia gizartera era xamurrean hurbiltzeko dibulgazio-liburuen bilduma berria indartuko dugu.

2. Haur eta gazteei zientzia helaraztea

Haur eta gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko jakin-mina sortu eta arlo horien inguruko bokazioa piztuko dugu.

- Diagnostikoaren, komunikazioaren eta partaidetzaren inguruko eragile-lana egiteko plataforma eskainiko dugu.
- Museologia-zerbitzu espezializatuak abiatzeko lan egingo dugu.
- Gazteentzako argitalpen-ildo berriak indartuko ditugu (zientzia-narrazioak, esperimendu-liburuak, multimedia...).

3. Publiko espezializatuari zientzia helaraztea

Euskal Herriko zientzia, teknologia eta berrikuntza zabaltzeko erakunde bitartekaria izan nahi dugu.

- Prentsa-zerbitzu espezializatuetan barneratu eta komunikazio-zerbitzuak zabal eskainiko ditugu.
- Goi-mailako zikloetako argitalpenetan euskaraz argitara dadin zerbitzua emango dugu.



HIZKUNTZAREN GARAPENA

7. Hizkuntza-teknologiaren i+g

Hizkuntza-teknologiaren arloan ikerketa bultzatzea dugu helburu, euskararen garapenerako.

- Transferentzia teknologikoa areagotzea bilatuko dugu, gainerako hizkuntzak ere kontuan izanik.
- Euskal Herritik kanpoko proiektu eta deialdietan, gure presentzia areagotuko dugu ikerketan modu egokian posizionatuz eta lankidetzak sustatuz.

6. Hiztegiak eta corpusak

Bezeroei egokitutako baliabide lexiko-terminologikoak, corpusak, hiztegiak eta zerbitzuak eta hiztegi-produktu aurreratu eta espezializatuak eskaini nahi ditugu.

- Etorkizuneko hizkuntza-baliabideen zehaztapena egingo dugu, gaur egungo teknologian eta jakintzan oinarrituta.
- Zerbitzu berriak eskaini eta corpus-baliabideetan sakonduko dugu.

5. Hizkuntza-kudeaketan, itzulpenak eta zuzenketak

Itzulpenak, hizkuntza-zuzenketak eta -trebakuntza eskaini nahi ditugu hizkuntza zerbitzuen arloan..

- Zientzia eta teknologiaren alorreko itzulpenetan gehiago barneratuko gara.
- Bezeroari balioa ematen dion estrategia indartuko dugu eta berrikuntza teknologikoa eta jakintzaren transmisioa sustatuko ditugu.

4. Gizarte-eragileei zientzia helaraztea - kultura zientifikoaren Elhuyar Laborategia

Zientzia, teknologia eta ikerketaren dibulgazioaren teorizazioan eta dinamizazioan erreferentziazkoa izango den gunea da Elhuyar Laborategia.

- Gizarteko hainbat sektoretan zientzia, teknologia eta ikerketaren egoeraren diagnostikoa egitea (ezagutza, pertzepzioa, bokazioak...) eta horren inguruko dinamizazioa eta hausnarketa egin eta eragingo dugu.
- Zientziaren dibulgazio-lanen sorkuntza sustatuko dugu.



Izan nahi al duzu gure asmoetan bidaide?

ELHUYAR FUNDAZIOA 2012

Helburu korporatiboak

- **Hazkundera.** Euskararen garapenean eta zientziaren gizarteratzean pausoak egiten jarraitzeko, gure fakturazioan hazten jarraitu behar dugu, egitasmo berriak abiatuz eta erronka berriei erantzunez
- **Zabalkundera.** Egiten ditugun proiektuen bidez, eta beste proiektu berri batzuen bidez, erabiltzaile gehiagorengana iritsi nahi dugu. Era berean, gure bazkideen sarea handitu nahi dugu.

Ardatzak:

ELHUYAR GIZARTEAREKIN BAT

Elhuyarrek bezeroengan eta gizartean oinarrituta eraikitzen du bere estrategia, bazkideekin batera.

ELHUYAR IZENA ETA IZANA

Elhuyar ezaguna da gizartean zientzia gizarteratzen eta hizkuntza garatzen egindako lanagatik. Elhuyarrek dituen helburu publikoei esker, balio handiko erakunde bezala hautematen du jendeak.

ELHUYAR BERRITUZ ERABERRITU

Elhuyarren bokazioa da proiektu eta zerbitzuetan aitzindari izatea. Berrikuntza du horretarako ardatz: negozio-ereduan, produktu-eta zerbitzu-eskaintzan eta jakintzaren kudeaketan.

ELHUYAR: LANAREN BALIOA

Elhuyarrek bere lanaren kalitatea du marka. Bezeroaren ezagupen sistematiko bat eginez eta bere estrategiarekin bat datorren barne-trebakuntzaren bidez lortzen du hori. Garapen profesionala eta trebakuntza jarraitua balioesten ditu, profesionalen jardueraren ebaluazioan oinarrituta.

